

HIRIGINTZA FITXA. - 24 SO. SANTA KATALINA ALDIRIKO PARKEA

HIRITARREZINA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Debako Udalaren hitzarmena, 2002ko abenduaren 27koa, Santa Katalina finka Debako Udaren jabetzakoa bihurtu zuena (ikus 2. dokumentua: Antolamendu Memoria, 9. kapitulua).

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.
 2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Landako espazio libreen sistema orokorra (11. artikulua: F.2).
 2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : 89.264 m²

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Eremua herritarren aisialdiari begira antolatuko da, pasaiaren behatoki bikain eta aparteko gisa ulerturik, eta Santiago Bidearen funtsezko osagai moduan, Itziariko santutegiaren eta Santa Maria elizaren artean.

4. KUDEAKETA.

Sistema orokorra garatzeko plan berezia. Gutxienez hiru Hirigintzako Esku-hartze Alderdi (HEA) zehaztu beharko ditu:

- 1 HEA. Santa Katalina multzoa.
 2 HEA. Ingurumena lehenera ekartzea.
 3 HEA. Ekipamendu epeduna.

5. LURRALDE KATEGORIZAZIOA. Lurzoru hiritarrezina: espazio libreen sistema orokorra.

6. ESPAZIO LIBREEN APLIKAZIO ERREGIMENA.

6.1. Eraikuntza erregimena.

Lurzoru kategoria honetan, funtsezko helburua herritarren aisialdi eta olgeta intentsiborako eremuak antolatzea da. Eraikuntza apaingarriak eta espazio libreen erabilera osagarrietarako eta Egiako bizilagunen premiei erantzuteko eraikuntza finko edo behin-behinekoak bakarrik baimenduko dira, eta baita lurpean dagozkien azpiegiturak jartzea ere. Santiago Bideari lotutako erabileren baitan, erromesentzako aterpetxeak baimenduko dira.

	Solairuan har daitekeen Azalera m ²	Solairu estalgarria m ²
1 HEA. Santa Katalina multzoa: eraikuntza finkatua: ermita.....	60	60
aterpea.....	130	130
baserria.....	140	350
3 HEA. Ekipamendu epeduna: Erromesentzako aterpetxea	400	800

Onartutako gehieneko profila: Santa Katalina multzoa: BS+1+EP
 Ekipamendu epeduna: ES+BS+1+EP

Zorutik teilategalerako altuera: Santa Katalina multzoa: 7 metro.
 Ekipamendu epeduna: 7-10 metro.

6.2. Erabilera erregimena.

Publikoa.

Erabilera bultzatuak:	Espazio libreen erabilerak, horien osagarriak barne. Aisia estentsiboa eta intentsiboa.
Erabilera onargarriak:	Aldi baterako edo behin-behineko lehen mailako merkataritza erabilerak –kioskoak, txosnak eta abar–. Ekipamendu erabilerak espazio librearekin bateragarriak diren modalitateetan. Zerbitzu azpiegiturak. Santiago Bideari lotutako erabilerak.
Erabilera debekatuak:	Aurreko modalitateetatik ezeinetan sartu gabekoak, aurreko titularraren etxebizitza izan ezik, sinatutako hitzarmenari lotuz.

6.3. Jabari erregimena: Titularitate publikoa.

6.4. Berriazko aplikazio erregimena:

Urriaren 18ko 406/1994 Dekretua, aterpetxeak antolatzeari buruzkoa.
Aurreko Dekretua garatzen duen 1997ko azaroaren 12ko Agindua.

6.5. Jarduketa sistema (handitzerik eginez gero).

Desjabetzea.